

## KANALAK

Bezeroez gain, proiektua aurrera eramateko behar ditugun kanalak ere ezinbestekoak dira. Kanal hauekin publizitatea, komunikazioa, salmenta eta gure proiektuaren banaketa ongi definituko ditugu, horrela gure proiektua erabilgarri eta arrakastatsu izan dadin.

Zerbitzuari martxa emateko lehenengo pausoa udaletxei gure proiektua azaltzea izango da, hari eskatuko diogu aretoa, eta, gainera, arrakasta izaten badu, bera izango dira guri soldata bat ahalbidetuko diguna. Horregatik, Euskal Herriko udaletxeetara joango gara eta bertan gure zerbitzua aurkeztuko genuke. Balekotzat joko balute, herriko aretoa erabiltzeko behar diren paperak eskatuko genituzke eta hauek bete ondoren publizitateari ekingo genioke.

Publizitatea, proiektua Euskal Herria mailan zabaltzeko gako da, eta guk, egunerokoan arrakasta duten ereduak baliatuz, inspirazio-iturri izango genituzke gure kanpaina abiarazteko. Gure enpresak duen helburua herrietako gurasoengana irits dadin, udaletxeari ea herritik zehar kartel batzuk jarri ditzakegun galdetuko genioke, kartel horietan saioak, noiz, eta non izango diren, eta gure email eta telefono zenbakia jarriko genituzke. Hala ere, jendeak kartelak irakurriko ez balitu, sare-sozialetan publikatuko genuke, facebooken, instagramen, twitterren... eta horrela gure zerbitzua herriko gurasoengana iristeko aukera gehiago izango ditugu.



Gurasoek saioetan izena eman nahiko balute, gure web orriaren bidez egin beharko lukete. Gure web orria, karteletan eta sare-sozialetan jarriko genuke. Bertan gurasoen izen-abizenak eta mugikor zenbakia besterik ez lituzkete apuntatu beharko. Izena emango luketeen gurasoekin zerrenda bat egingo genuke eta saioen ordua iristean zerrenda hau pasako genuke ea denak dauden jakiteko. Eta mugikor zenbakia, edozer gauza gertatuko balitz, edo saioak atzeratu edo bertan behera geratuko balira gurasoak ohartarazteko izango litzateke.

Bestalde, ez dugu beti aurrez aurreko komunikazioa erabiliko, automatizatu baizik, hau da, aurreko ataletan aipatu dugun moduan, haiekin saioei buruz hitz egiteko edo arazoren bat badute etortzeko telefono edo email bidez komunikatuko gara.

Hori guztia aurrera eramateko web orri bat egitea ideia onena iruditu zaigu. Nahiz eta bertan ez genukeen aparteko informaziorik izango, baliagarria izan daitekeela iruditzen zaigu. Gure webgunea oso bisuala izatea nahi dugu, nor garen, gure helburuak zein diren eta gure saioetan parte hartzeko zer egin behar den jarriko genuke. Horrez gain, nola ez, telefono zenbakia eta emaila txertatuko genituzke argi ikus daitezkeen karratu batean.